

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa batek bere balorezko proposamena egin dezan, hori bera bezeroei helarazi diezaien, bezeroekiko harremanak mantentuz, eta, azkenik, diru sarrerak sor ditzan ezinbestekoak diren gure funtsezko baliabideak hauek dira:

- Baliabide fisikoak
- Giza baliabideak
- Baliabide intelektualak
- Finantza baliabideak

Baliabide hauek kostuak murrizteko, produktuaren saltze aukerak hobetzeko, produktua diseinatzeko, iraunkortasuna luzatzeko etab.

Kostuak murrizteko, gure produktuaren atal batzuk, adibidez eskularrua eta aterkia ez ditugu guk diseinatu eta fabrikatuko, beste enpresa batzuen esku utziko dugu enpresa horiek sektore horietan espezializatuta baitaude.

Gure produktua beste denda batzuetan ere salduko da, izan ere, beste enpresa batzuekin harremanak egin ditugu eta akordio batera heldu gara.

Gure produktuaren atal batzuk guk diseinatuko ditugu. Produktu horren diseinua egiteko eta fabrikatzeko lokal bat eta makinaria berezia ditugu.

Iraunkortasuna luzatzeko hainbat enprekin akordioa dugu gure produktua beraiek ere saldu dezaten eta gainera web-orrialde bat ere badugu gure salmentak igo dezaten.